

## Napola, escuela de élite nazi (2004)

### Egitekoa

Lana, 2022/09/03, 10:00h arte duzue entregatzeko. PDF formatuan igo (3pt)

- [Napola, escuela de élite nazi](#) (Dennis Gansel, 2004, Alemania) filma ikusi behar duzue. **SAKATU HEMEN pelikula ikusteko**. Online duzue, ez da ezer deskargatu behar.
- Zuzentzerako orduan, zorrotza izango naiz, beraz, **saiatu praktika ahalik eta hoberen egiten**.
- Bakarkako lana da. 3pt balio ditu, beraz, **ortografia, lexikoa, gramatika... zaindu**.
- **Plagiatutako lanek, 0 bat** eduki ez ezik, **praktiketako atala suspenditzea suposatuko du** ere.
- **Beste iturrietatik ateratako informazioa aipatu behar da**, saiatu APA 7n egiten
  - behintzat: Abizena, iniziala. (urtea). titulua. URLa baldin badago jarri
- **PDF FORMATUAN IGO**. Ez dira beste formatuetan entregatutako lanak zuzenduko.
- **Epez kanpoko** bidalketek, **0.5ptko zigorra** edukiko dute.

#### 1. **Fitxa teknikoa**

	<ul style="list-style-type: none"><li>● Jatorrizko titulua: Napola - Elite für den Führeraka</li><li>● Urtea: 2004</li><li>● Iraupena: 95 min.</li><li>● Herrialdea: Alemania</li><li>● Zuzendaritza: Dennis Gansel</li></ul> <p><i>Zuzendariak bere aitonaren esperientzian oinarritu zen filme hau idazterakoa.</i></p> <p><b>Informazioa:</b></p> <ul style="list-style-type: none"><li>● <a href="https://www.imdb.com/title/tt0384369/">https://www.imdb.com/title/tt0384369/</a></li><li>● <a href="https://www.filmaffinity.com/es/film528649.html">https://www.filmaffinity.com/es/film528649.html</a></li></ul>
--	--

#### 2. **Lekuak identifikatu**

Eskola, etxea, auzoa, museoa... eta **4-5 bat lerro eskeini.**

Lekua	Deskribapena
<i>Eskola</i>	<i>Adib. Non dago kokaturik? Pribatua ala publikoa? Auzo txiro batean, aberatasa, erdi mailako auzoa. Instalazioak nolakoak etab.</i>
Napola	Gaztelu zahar batean kokatua, basoz inguratua eta hirigunetik nahiko urrundua. Eskola hauek izatez publikoak ziren arren, agintari goreen semeek lehentasuna izaten zuten. Soilik mutil ariarrak ikas zezaketen bertan; teoriarik berdin zuen zein zen hauen gizarte-maila. Instalazioei dagokienez, geletan literak zeuden eta bakoitzak armairu txiki bat zuen zeina modu oso zehatz batean antolaturik egon behar zen. Eskolak ematen zituzten geletan, arbela eta irakaslearen mahaia zeuden aurrealdean eta ikasleak banakako mahaietan kokatzen ziren parean. Behean diskurtsoak emateko gela erraldoi bat zegoen, non Napolako zuzendariak atrilaren erabileraz hitz egiten zien ikasle zein irakasleei. Bazuten jangela eta boxeatzeko gela ere. Guztia propaganda naziz josita zegoen, gazte hitleriarrentzako eskola nazionalistak ziren eta.
Friedrichen etxea	Pisu batean bizi dira, etxearen kanpoaldea nahiko zaharra pitzadura ugarirekin. Friedrichen familia klase baxukoa litzateke, horren adibide guztiek metalezko bainuontziko ur zikina partekatzen dute.
Albrechten etxea	Luxuzko etxe erraldoi eta dotorea, sarrera erraldoi batekin. Neskameak egiten zuten lan bertan. Dekorazio guztia oso inbertsonala da Albrechtek dioen bezala, guztia iada etxean baizegoen.
...	

### 3. **Ikasle mota ezberdinak identifikatu (ikasleak)**

Pertsonaiak hemen dituzue: [https://www.imdb.com/title/tt0384369/fullcredits?ref=tt\\_cl\\_sm](https://www.imdb.com/title/tt0384369/fullcredits?ref=tt_cl_sm)

#### 1. **Protagonisten profil psikologikoari buruz hausnartu: nortasuna, jarrera, erreakzioak...**

Ikasle mota	Izena/ zein da?	Zer egiten du
<i>Adib. Gelako "frikia", "outsiderra",</i>	<i>Adib. Maitane, "arraza" zuria, "arioa" (filmean, baino berez, zuri</i>	<i>nortasuna, jarrera, erreakzioak Adib. Maitane oso persona isila da, baina filmean aurrera doan einean, ausarta dela ikusi dezakegu X gertatzen denean eta Yri zera...</i>

<p>“popularra“, “baztertua”,</p>	<p><i>bada, nordikoa, mediterraneokoa... ) arropa txiroak... erlijioa,; estatus ekonomikoa</i></p>	<p><i>Kristaua den arren, ez dago ados Napolaren ikuspegiarekin... bla bla eta ... Ez du bere buruan konfidantzarik, nahiz eta kontrakoa dirudi bla bla blarengatik...</i></p>
<p>Popularra, indartsua.</p>	<p>Friedrich Weimer, arioa (Napolakoek nordiko moduan definitzen dute).  Klase baxukoa.  Familia erregimen naziaren aurkakoa.</p>	<p>Bere jarrerak bilakaera handi bat jasaten du filmaren hasieratik amaieraraino. Hasieran oso harkor dago egoera berriarekin, esaten diotena eta egin behar duen guztia ondo iruditzen zaio eta motibatuta dago, ordura arteko bizitza arrunt hori aldatzeko aukera ikusten duelako. Etxean dagoenean pertsona errukitsua da (hasieran boxeatzan ez dio k.o-ko kolpea ematen lehiakideari) baina napolan hori guztia ezabatzea behartzen dute. Pixkanaka eskolan irakasten duten molde horien baitan jokatzeko hasten da, harro abesten ditu Hitlerren aldeko kantuek. Beste kideen onarpena lortu nahi du. Amaieran, Albrechten heriotzaren ondoren, bere Napolako ametsa alboratzen du eta kritikotasuna azalertzeari ekingo dio, lagunaren heriotzaren arrazoiak ikusiz eta hauen aurka egin nahiean.</p>
<p>Botereduna, zorrotza.</p>	<p>Friedrichen aita  Langilea</p>	<p>Ez da erregimen naziaren aldekoa. Zorrotza da pentsatzen duenarekin eta aurrez antolatutakoa egitera behartzen du, justifikatzeko eta hitz egiteko aukera gutxi eskainiz semeari. Semea erregimenarekin lotura duen guztitik urruntzeko asmotan da gogorra berarekin, soilik horrela ikusten duelako hau babestu dezakela.</p>
<p>Kritikoa, sentibera, azkarra.</p>	<p>Albrecht Stein  Familia aberats eta garrantzitsua, maila altukoa. Bera ez da erregimeraren sinpatizante izango.</p>	<p>Botere handiko funtzionario baten semea da eta, beraz, honela lortzen du Napolan sartzea. Hasieratik iragartzen da ez delako gainerako bere ikaskideak bezalako; ikasgelan esaterako, bere ikuspegia kritikoa da ideologia naziarekin. Ez ditu ez eskolan ez etxean ikasitako jarrerak erreproduzitzen. Iluntzeko hilketetan parte hartzea behartzen dituztenean, berak ez ditu aginduak jarraitu nahi eta armagabetuta daudela ikustean gazte errusiarren bizitza salbatzen saiatzen da, humanismo eta enpatia zantzu nabariak dituzte bere jokabideek. Ondoren, idatzi baten bidez hori salatzea erabakitzen du, bidegabekeriari aurre egin eta gainerako kideen</p>

		<p>begiak ireki nahian; ez baita konformatzen. Pertsona sentibera eta azkarra da, bere sentimenduak azaleratzen ditu.</p>
	<p>Albrechten aita</p> <p>Erregimen naziko kargu altua, diruduna, pribilegiaduna.</p>	<p>Oso gizon serioa da, zorrotza, errespetua ematen duen horietakoa. Hala ere, bi rol ezberdin betetzen dituela esan daiteke. Alde batetik, aita bere lagunekin duen jarrera egongo da non dibertigarria izango den eta azaleko harreman baina harreman onak izango dituen beste aginariekin. Bestalde, modu nabarmenenean bere semearekin ikus daiteke, erabat menderatzaile eta zapaltzailea dela, ankerra eta biolentoa, ez duela estimurik sentitzen. Ezin da kuestionatu berak esaten duena eta ikasleak honen esanak bete behar dituzte. Aipagarria bere semea suizidatu ondoren dioena: “<i>era demasiado débil</i>”.</p>
	<p>Cristoph Scheneirder</p>	<p>Ez dirudi bere buruarengan konfidantza eta segurtasun handirik duenik, izan ere, kideei adarra jo eta iraintzen die askotan fisikoarekin sartuz.</p>
<p>Gizajoa</p>	<p>Willem (Levadura)</p>	<p>Bere itxura fisikoagatik beste kide zein pertsonaiek iraindu egiten dute. Guztiek ditzuzten beldur eta konplexuak azalatu ezin dituztenez, handi sentitzen saiatzen dira, itxuraz behintzat ahulena dirudien kidearekin. Willemek, bestalde, parre egiten du eta badirudi ez dituela irainak serio hartzen, errealitatean min egiten dioten arren.</p>
<p>“puzkar luzeenaren errekorra duena”</p>	<p>Tjaden</p>	<p>Puzkerren kontuarekin barregarria den arren, gauean izua sentitzen du eta belarriak estaltzen ditu.</p>
	<p>Justus (jefe regimiento)</p>	<p>Maila orokorrean botere errealik ez duen arren, badu ikasleen artean agintzeko indarra eta hori erabiltzen du besteak zapaltzeko eta bere autoritarismoa nabarmentzeko. Bere nortasuna indartzeko eta inor berarekin ez sartzeko erraminta gisara baliatzen du duen indar hori. Gainera, Siegfriedi xantaia egiten dio.</p>

Baztertua	Sigegfried (pixa egiten duena)	Irakasleek etengabe umilatzten dute pixa egiten duelako ohean, zigorrak ezartzen dizkiote etengabe (aipagarria adibidez, koltxoian pixa egin arte beste ikaskideak zigor bat betetzen egotearena, besteen errefusa handiagotu nahi da eta Siegfried besteen kalte bezala aurkeztu). Ez du hitz egiten ia filma osoan zehar. Azkenean, granadak jaurtitzen ari direnean eta Martinek izuturik ez du eskuetatik askatzen eta bere sufrimenduarekin amaitzea erabakitzen du kideei bizitza salbatuz eta bere burua sakrifikatuz. Orduan, Napolan ordura arte eengabe zanpatzen zuten ikaslea heroi bilakatzen dute.
	Vogen, ariarra	Friedrichen irakasle aholkularia bilakatzen da, mentore modukoa. Boxeoa irakasteko moduak berak Napolako ideiak irudikatzen ditu. Justus Friedrich umilatzten saiatzen denean egoera mozten du bere ikasle berria defenditzeko eta egoera horretatik ateratzeko asmoz.

#### 4. Irakasle (instrukto) motak

Atal bakoitzean, azal ezazu:

- Zer egiten dute ondo? Zer egiten dute gaizki? Zer aldatuko zenuke?
- Irakaskuntza mota (hasieran bat izan daiteke eta amaieran beste bat).
- Erabiltzen dituzten “irakas-teknikak” (konduktistak ez ezik, “imitazioa” etab. Ere. Ostiraleko klasean ikusiko duguna txertatu ere)
- Kritikoki pentsatzen erakusten diete? (Argudiatu)
- Beraien hitzek, zer-nolako ondorioak dituzte ikasleen igurikimenetan/igurikapenetan (expectativas), motibazioan etab.?

#### ***Vogler (boxeoko irakaslea)***

*Lehen aipatutako puntuak aparte, hau aipatu ere: Friedichi esaten dizkion hainbat esaldi oso esanguratsuak dira. Aipatu. Ikaskuntza emozionalarekin uztartuta*

*“Hazlo con toda tu fuerza y sin compasión” “Haz desaparecer de tí todo rastro de humanidad, toda esa compasión aprendida y el falso pudor. Solo cuando puedas hacer eso podrás explotar tu potencial.”*

Egia da gertutasuna adierazten duela Friedrichekiko eta honek, konfidantza puntu bat garatzen duela bere mentore den horrekiko; garrantzitsua da ikasleak beren eredu diren horiez fidatu ahal izatea. Gainera, ongi entrenatu ondoren indartzaile positiboa ematen dio, esanez horrela jarraituz gero lehiaketa garrantzitsuan eskola ordezkatu ahal izango duela. Friedrichek izugarritzko motibazioa du boxeoa arrakasta izateko eta beraz, itsu-itsuan egin eta erreproduzitzen ditu Voglerrek erakutsitako jarrerak. Argi dago kritikotasunaren lanketa guztiz arbuiatua dela, izan ere, boxeolari arrakastatsua izateko modu bakarra humanitate oro desagertzea dela dio bestela ez duela nahi duena lortuko, hortaz aukera bakar bat bakarrik eskaintzen zio ikasleari.

### **Gorputz-hezkuntzako irakaslea/instruktorea**

*Lehen aipatutako puntuak aparte, hau aipatu ere: bere sari/zigorrek... baliagarriak al dira? Epe luzerako?*

Zigorak ez dira baliagarriak izango, izan ere, Siegfrieden kasuan adibidez, gehiago eta zigor okerragoak jartzeak ziurrenik areagotu egingo du ohean pixa egitearena, urduriago eta presionatuago sentituko baita. Gainera, orokorrean ezarritako zigorrak gehiegizkoak dira, ikasleek edukitako “jokabide txarraren” mailan jarriz gero. Isiltasunaren izkina ere erabiltzen du, umilatzeko tresna gisa, ikasle bera koltxoia eusten jartzen duenean bakartuta, ez da eraginkorra ez adinagatik ez aplikatutako denboragatik. Eredu moduan jartzen du bere burua besteek bere gauza bera lor dezaten (abdominalen kasuan). Bere hitzek ez dute utziko sentsibiltatea garatzen ikasleengan, beti kanpotik irudi gogorra eman beharko baitute.

### **Armamentuko irakaslea/instrukotorea**

Modelaketa erabiltzen du, berak azaldu egiten baitu esaterako granada nola lehertu eta ondoren ikasleei gauza bera egiteko eskatzen die. Ikasleak behartuta daude berak egiten duena errepikatzen, arma errealak direnez bestela heriotza arriskua dutelako. Ikasleak babestu beharrean bere burua babestea erabakitzen du ihes eginez.

## Napolako zuzendaria

Egia da hasiera batean ematen duen diskurtsoan, oso ondo dagoela, guztiak berdin tratatuko dituztela esatea, beraien maila ekonomikoa aintzat izan gabe. Gainera, ikasleak asko motibatzen ditu etokizuneko milurteko inperioaren agintari izango direla esanez, diamante batzuk direla etab.

Bestalde modelaketa erabiliko du, eskuak altxatzeko eta garaipen garrasia egiteko eskatzen duenean. Irakasle guztiek eta zuzendariak bereziki napolako kide guztien arreta bildatuko du ondoren hauek, jokabide horiek ikasi eta erreproduzitu ditzaten.

## Beste irakasleak (mate, zientziak...)

*Lehen aipatutako puntuak aparte, hau aipatu ere: Ariketak, curriculum, zeri bideratuta? Mateko ariketetan, teoretan, adibidez, baserri bateko adibideak jartzen dituzte edo beste batzuk?*

Kritikotasuna ezin dute landu, izan ere, erregimen naziaren baitako ideiak soilik ikasten dituzte eta alorra oso mugatua izango da horri dagokionez, ezingo baizaio inolaz ere aurka egin.

“Darwin la lucha de las especies - la lucha de los pueblos por sobrevivir”  
“escritores romanos y la cuestión judía” “Los fundamentos que dió el Führer del movimiento nacional socialista para conducirlo a la victoria”  
“La eliminación del débil garantiza la supervivencia del fuerte” “(...) después del diablo, no tienes enemigo más amargo, venenoso y vehemente que un auténtico judío” matematikako ariketen adibide bat esaterako, denbora tarte batean jaurti litezkeen bonba kopuruarena da.

Eskola teorikoetan egiten duten guztia beren ideologian erregimenaren ideiak sartzeko da, guztiz alderagarria esaterako Fratoren fabrikaren biñeta edota Pink Floyd-en Another brick in the wall. Hau da, guztiak molde beraren baitan hezten dituzte eta hori egin ezean bidali edo ondorioak pairatuko dituzte.

Nire ustez, irakasteko modu horrek ez du gazteen garapena inolaz ere sustatzen. Errefortzuak ezartzen dituzte irakasleak motibaturik egoteko nolabait eta ereditik ateratzen den oro zigortu egiten da, honela pixkanaka ikusten dutenetik ikasiko dute, horrelako jarrerak erreproduzitzen.

## 5. Familia-erlazioak

Nola eramaten dira protagonistak beraien gurasoekin? Komunikazioa al dago?

### Friedrichen gurasoak (aita eta ama)

*Aita Napolara joatea nahi du? Zergatik?*

*Zer-nolako pentsakera duela uste duzu?*

*Gurasoek enpatia dute?*

Hasteko aita ez da erregimen naziaren aldekoa, beraz, argi eta garbi ez du nahi Napolara joatea. Friedrichek fabrika lan egitea nahi du eta debekatu egiten dio hitleriar eskolara joatea. Ez du nahi bere semeari beraien guztiz aurkakoak diren ideia horiek buruan sartzea, guztiz aldatuko dutelaren beldur.

Gurasoak haserre baino izututa daude, ez dute bere semearentzat etorkizun hori nahi, hau da, nazien idealak barneratzea eta hare gutxiago napola batera joanda, non etorkizuneko agintari izateko prestatzen dituzten, humanitate eta enpatiarik gabe. Aitak eta amak modu ezberdinean ikusten dute egoera; aitak ez du enpatizatzen semearekin ez duelako proposamena bideragarri ikusten eta amak berriz, ez du inguruan ezer esaten baina semea etxetik ihesi doala ikusi egiten du, ezer ez esatea erabakiz, ulertzen duelako semeak ere zergatik egiten duen hori, haien bizi baldintzak ez dira bereziki onak eta haien guztiz kontrako leku gogaikarria den arren beste etorkizun bat izateko aukera zuen.

### Albrechet gurasoak (aita bereziki)

*Albrecheten zaletasunak gustatzen zaizkie?*

*Aipa ezazu gela gorrian gertatutakoa Albrechten eta Friedrichen artean?*

*Nola sentiarazio dizu aitaren jokaera? Hezitzaile bezala jokatu du?*

Amak ez dio ezta momentu batean jaramonik egiten idazten duenari ezta bere zaletasunei ere. Aitak hori ez ezik, bere semearengatik lotsa sentitzen du jendaurrean, ez dio kasu zipitzik egiten eta zigorra ezartzen dio (zeina Albrechtentzat oso negatiboa izango den, SS indar armatuetan boluntarioki izen ematea) hau izango da gaztearen egoera leherraraztea egingo duen gertakaria, azkenean honek bere buruaz beste egiten amaituko baitu.

Gela gorrian, helduek txotxongilo moduan agertzera behartuko dituzte bi gazteak, aitak dio “*todo muchacho alemán debe boxear*”. Gainera, errukirik gabe borrokatzeko eskatzen dio Friedrichi (jakinik Albrechek ez dakiela), hasieran ez du erasotzen. Friedrichek irabaztean, guztiek zoriontzen dute, hau goraipatuz eta beste gaztea hare eta gehiago umiliatu eta zapalduz.



Aitak bi lagunen arteko lehia sustatu du, jakinik bere semeak ez zuela zereginik eta galdu egingo zuela. Badirudi nahiagoko lukeela Friedrich izatea haren semea Albretch ordeztuz, lotsa eta arbuioa sentitzen baititu honekiko. Ez du inolaz ere hezitzaile moduan jokatu

## 6. Bukatzeko

Zer iruditu zaizu filma?

Oso film interesgarria izan da niretzat, izan ere, bestela ere nire kabuz ikusiko nukeen filme bat delako hau. Lana egin behar zenez xehetasunak gehiago begiratzeko nituen eta egia da beste perspektiba ezberdin batetik ikusi dudala. Bestalde, garai latz horietako harremanak eta norbanakoen jarrerak aztertzeak zer hausnartu eta pentsatu ematen du, testuingurua erabakigarria baita hauek ulertzerako garaian. Honez gain, pasa den urtean gure aitona-amonen hezkuntza esperientzia aztertu genuen eta interesgarria iruditzen zait antzekotasunak antzematea filmeko Napolan ematen den hezkuntzarekin. Gainera, gaur gaurkoz ere ikus ditzakegun jarrerak erreproduzitzen dituzte pertsonaiek (asko hain muturrera eramanez gabe noski), hortaz esan dezakedana da hezkuntza ereduak ere ez dela gehiegi aldatu eta hausnartzeko modukoa dela irudiko gauzak topatzea.

## 7. Erreferentzia bibliografikoak

Gansel, D. (2004). *Napola - Elite für den Führer (Napola, escuela de élite nazi)* [Edición Especial Blu-ray]. Constantin Film (produkzio-etxea), Divisa Home Video (banaketa-etxea).